

‘Ataria’ 300 irakurleen ekarpenak mamitzen ari da

Inkesta bidez -telefonoa, ‘ataria.eus’ eta helbide elektronikoa erabilita- bere jarraitzaileen iritzia ezagutzeko konpromisoa hartu zuen ‘Tolosaldeko Ataria’-k; datuak aztertzeke unea da //3

Ikaztegieta herri baratzak udaberrirako martxan izango dira

Eskolaren atzean dagoen lurzorua hartu du errentan udalak; 1.800 metro koadro horiek hamabost zatitan banatuko dituzte; Ekogunea sarean sartzeko asmoa dute //4

Auzokonposta egin nahi duten alegiarrek jada izena eman dezakete

Udal bulegoetan edo helbide elektronikoz eman ahal izango da izena; urtarrilaren 13a, ostirala, arteko epea izango dute interesa duten herritarrek //4



REBEKA CALVO

«Iraulita dugun piramide demografikoari buelta eman behar diogu»

SILVIA MONEO CID BELAUNTZAKO ALKATEA

Mariano Lazkanoren bat-bateko heriotzak alkate kargua onartzea ekarri dio Moneori: «Bere ondoan egon eta ikasteko asmoz onartu nuen erronka, bat-batekoa izan da eta ohitu egin beharko dut» //5

ataria 2017
bertso jaialdia

Urtarrilak 21, larunbata 18:00etan Tolosako Leidor antzokian

Sarrerak atarikideentzat 8€ atarikide:
Egin zure erreserba urtarrilaren 5era bitarte.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.
Deitu edo idatzi: 943 65 56 95 • atarikide@ataria.eus

teffer

Aroztegieta, 9 Tolosa
Biteri, 11 Errenteria
Tel.: 665 708 163

3.646 sinadura bildu ditu Tolosaldeko Giltzarriak galdeketaarako

Gaur Villabonan Antzuola eta Azpeitiko esperientziak ezagutzeko aukera izango da eta mosaiko erraldoia egingo da etzi, Tolosan

Erredakzioa

Tolosaldeko Giltzarriako kideek lanean jarraitzen dute martxoaren 19an eskualdean egin nahi duten galdeketa bideratzeko. Izan ere, galdeketa egin ahal izateko herritarren babesa behar dute eta hori sinadura bidez ari dira gorpuzten. Eskualdeko herri askotan jarri dituzte sinadurak biltzeko mahaiak azken aste hauetan eta iragarri dutenez dagoeneko 3.646 jaso dituzte. Hurrengo egunetan jarraituko dute sinadura gehiago biltzen.

Tolosaldeko Giltzarriak hainbat hitzordu antolatu ditu Eguberrietako datak baliatuz. Alde batetik, gaur, mahai ingurua egingo dute 18:00etan, Aljibean, Amasa-Villabonako Gure Esku Dagok antolatuta. Antzuolako eta Azpeitiko kideek beren herri galdeketa esperientziak izango dituzte hizpide.

LARUNBATEAN MOSAIKO ERRALDOIA TOLOSAN

Urteko azken egunean, berriz, mosaiko erraldoia egingo dute Tolosan *Amestetik sinestera, piztu erabakia!* lemapean. Urtezahar egunean 18:15ean egin dute hitzordua Tolosako Euskal Herria plazan, eta argazkia aterako dute 19:00etan. Erabakitzeko eskubidea gauzatzearen alde dauden herritarrak gonbidatu dituzte datorren larunbateko hitzordura azaldu daitezen mosaikoan parte hartzera.

Aurrekontua onartzeko ohiko osoko bilkurak, gaur

AMEZKETA / TOLOSA // Amezketa, gaur 13:00etan egingo dute ez ohiko bilkura eta 2017. urteari dagokion aurrekontu orokorra eztabaidatuko dute. Tolosan berriz, 20:00etan emango zaio hasiera osoko bilkurari eta hurrengo urteko aurrekontu orokorra onartzeaz gainera, Iturriza jau-regiaren zuzeneko erosketa, korporazioko partaideen ordainsarien xedapena eta besteak beste, poliomilitisa eta Manu Azkarteren atxilotetaren inguruko mozioak eztabaidatuko dira.

Alkoholiko Anonimoen Urdina taldeak bilera gaur

TOLOSA // Alkoholiko anonimoen Tolosako Uzturre taldeak, biler irekia egingo du Corpus Christiko aretoan, gaur 19:30ean. Alkoholismoaren eta bere ondorio eta irtenbideen inguruan hitz egiteko bilera izango da. Uzturre taldetik adierazi dutenez, «alkoholismoari buruzko informazioa eskuratu nahi duen pertsona edo senide oro ongietorria izango da».

Altzon mobilizazioa presoan alde Urtezahar egunean

ALTZO // *Altzotarra naiz eta giza eskubideen alde nago. Horregatik nik, #SalatzenDut* lemarekin elkarretaratzea egingo dute preso eta iheslarien alde Altzoko plazan Urtezahar egunean 20:00etan hasita. Bide batez, 2017ko egutegia eskuratzeko aukera izango da egunotan udal bulegoan edo liburutegian. Gaur eta urtarrilaren 5ean itxita egongo da liburutegia. Udal bulegoak, berriz, urtarrilaren 3, 4 eta 5ean zabalduko dituzte goizez.



LURSAILA EROSI DU UDALAK

Irurako Udalak Kale Nagusia 14ko lurzorua erostea erabaki du (Portal Enea). Krisiaren ondorioz aurreko jabeek ezin izan zituzten beren egitasmoak aurrera eramanez eta aukera hau baliatuz herriko lur ondarea handitu du Irurak. Erosketa, abenduaren 19an burutu zen Tolosako notario bulegoan. JON MIRANDA

Urtearen hondarrean ekitaldi ugari Tolosaldean

Urtea agurtzeko lasterketa herrikoiak egingo dira herri askotan eta mendian emango zaio ongi etorria 2017ari beste askotan

Erredakzioa

Nabari da Eguberrietan gaudela, besteak beste, kaleak apainduta daudelako. Tolosan Eskola Agenda 21 proiektuaren barruan hondakinak eta energia kontsumoa gutxitzeko asmoz, Plaza Berria apaindu dute Hirukide ikastetxeko ikasleek, Berdura plaza Samaniegoko ikasleek eta Euskal Herria plaza Laskorainekoei. Eguberriak, bide batez, kultur ekimenez beteta etortzen dira eta gaur, adibidez, Tolosan eta Tolosa&Co elkartearen ekimenez Dirt Jump eta Trial erakustaldia izango da Trianguloa plazan.

Gaur, baita ere, Villabonako Gurea zineman beste hitzordubat izango da eta *Lurra* emanaldia eskainiko dute Oinargi dantza taldekoek. Haizea, sua, lurra eta ura elementuak interpretatuz ekitaldi berezia eskaintzeko asmoa dute, 17:00etatik aurrera.

BIHAR, MUSIKA PROTAGONISTA Haurrengan pentsatuta antolatzen dituzte Gabonetako ekintza asko eta Iruran, esate baterako,

bihar, 17:30ean, *Imikarin* ikuskitzuna eskainiko dute kulturunean. Tor magoaren eskutik magia ikuskizuna izango da, bihar baita ere, Ibarako kultur etxean 17:00etan.

Alkizan berriz, Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa egingo da Ostatuan, 22:00etatik aurrera eta Elduainen berriz, Kontzeju tabernan eta Urdelar biltokian poteoa egingo dute 19:00etatik aurrera. Ondoren, biltokian Oztopo taldearen kontzertua izango da.

Bihar, musikaz gozatzeko aukera gehiago ere izango da hala ere: Asteasun Pilar Gerra ariko da udaletxean 19:30ean hasita; Eñaut Elorrietak bakarkako kontzertua eskainiko du, berriz, Villabonako Gurean, 20:30tik aurrera. Eta Bonberenean, zuzenean ariko dira 22:30ean, Willis Drummond taldekoak.

URTE ZAHARRA LASTERKA ETA URTE BERRIA MENDIAN

Larunbatean, urteko azken egunean, preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimen asko izango dira Tolosaldeko herrietan.

Urtea korrika agurtuko dute berriz beste batzuk, Alegia, Berastegi, Ibarra, Lizartza, Tolosa, eta Villabona-Zizurkilen egingo diren kros herrikoiei eta elkartasunezkoekin.

Batzuk mendian esango diote adio 2016ari, Irurako gazte asanbladakoek bezala, Urtezahar egunean hamaiketako eskainiko baitute Loatzon. Beste batzuk, Urteberri eguna baliatuko dute mendi buelta egiteko: Urdelarrera igoko dira elduaindarrak eta Uzturrera anoetarrek, adibidez. Alegian modu bitxian emango diote ongi etorria 2017ari, igandean 12:15ean mandarinak eta intxaurrak banatuko baitituzte udal ordezkariak.

URTE BERRI, ASMO BERRI

Urtarrilak 2an umeentzat ekimen ugari izango dira Tolosaldean. Amezketa puzgarriak jarriko dituzte, zinea izango da Asteasun, sormen tailerra egingo dute Alkizan, Idoia Sanchezek ipuina kontatuko du Altzon eta magoak ariko dira Iruran eta Tolosan, Imanol Ituino eta Eriz Magoa, hurrenez hurren.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



324

IRAKURLEREN IRITZIA, JASOTA

Joan den urrian, TOLOSALDEKO ATARIA-k bere produktua hobetzeko galdera sorta plazaratu zuen irakurle eta erabiltzaileen artean. www.ataria.eus webgutik nahiz telefonoz, 324 pertsonaren iritzia bildu dute guztira, eta gehien errepikatu diren ekarpenekin lanean dihardute orain. Helburua argia da: egunero-egunero, Tolosaldeko albisteen atari aberats eta anitzago bat gorpuzten jarraitzea.

zuneko irakurleak, gaurko gazte-txoak, ATARIA-ra erakartzeko gaiak ere.

BATZUENTZAT BELTZA DENA, BESTEENTZAT TXURI

300 irakurletako askoren iritzi eta erantzunak bat etorri diren modu berean, urrian egindako inkestetan, mutur bateko zein besteko iritziak ere jaso ditu ATARIA-k, galdera beraren inguruan.

Euskarari dagokionez, esaterako, bada agerkariak hizkuntzari gehixeago begiratu beharko liokeela uste duenik, eta baita ATARIA-ren euskara, tokiko komunikabide baterako, jasoezia dela dioenik ere.


Ekarpen-talkarekin jarraituz, papereko bi produktuen diseinuak askotariko iritziak sortzen ditu irakurleen artean: maketazio oso irekia eta eroso suertatzen zaie zenbaiti eta, aldiz, TOLOSALDEKO ATARIA-ren papereko edizioak erakargarriagoa izan beharko lukeela diote beste batzuek.

Eguneroko albisteen errenkadatik kanpo aukeratutako gaien ere, eztabaida sor liteke erabiltzaileen artean. Izan ere, eduki zenbait errepikakorrek iruditzen zaizkie irakurle batzuei, eta beste askok kontrakoa balioesten dute, hain zuzen: gaien aniztasuna.


Eta, errealitate berberari hamaika betaurrekorekin begira dakiokela berresteko, ideologien balantza ere hizpide izan dute irakurleek. Haietako batzuen arabera, aniztasun politikoa TOLOSALDEKO ATARIA-ren hutsuneetako bat da, izan ere, ezker abertzalearen ildora lerrokatutako komunikabidetzat dute.

Kotrara, bada ATARIA-ren oreka ideologikoa azpimarratu duenik ere, eta, adibidez, zenbaitek eredugarritzat jo du hauteskunde garaian komunikabideak Tolosaldeko alderdi politiko guztiei eskainitako tratua parekidea.


Jasotako erantzunak




Non jarraitzen dute Tolosaldeko Ataria?



Adin tartekak



Atarikideak



Irakurleen eskutik egiten da, etorkizunera bidea

‘Tolosaldeko Ataria’-k 300 inkesta baino gehiago bildu ditu joan den urrian, eta irakurleen ekarpenak mamitzen ari dira orain

Itzea Urkizu Arsuaga

2013. urtean sortu zenez geroztik, TOLOSALDEKO ATARIA-k eten gabeko ikaskuntzarekin uztartzen du eskualdeko aktualitatea. Garai berrietara egokitzea da egungo komunikabideen erronka handienetakoa, eta ATARIA-k irakurleen eskutik egin nahi du bide hori. Horrela, beraz, irakurleek betetako 300 inkesta baino gehiago jaso zituen joan den urrian, internet nahiz telefono bitartez, produktua eta zerbitzua hobetzen jarraitzeko.

www.ataria.eus webgunearen bitartez, guztira, 228 pertsonak erantzun zituzten TOLOSALDEKO ATARIA-k proposatutako galderak eta, erantzuna emandakoen artean zeuden Atarikideak (43),

inoiz ATARIA-ko, *Tolosaldeko Hitzako* edo *Galtzaundi* aldizkari-ko harpidedun izandakoak (30) eta informazioa internet bitartez soilik jasotzen dutenak (155).

Bide beretik, 96 izan ziren telefonoz egindako inkestak, harpidedunen eta noizbait harpide izandakoen artean.

Ehunka izan dira galdeketa horietatik guztietatik jasotako iritzi, ideia, eskaera eta proposamenak, TOLOSALDEKO ATARIA-ko lantalde berezi bat buru-belarri ari da, orain, irakurleen gogoak

Harpidedunei, inoiz harpidedun izan direnei eta interneteko erabiltzaileei egin dizkiete galderak

sailkatu eta bideratzeko ahaleginean.

PROPOSAMENAK, BELAUNALDI BERRIEI BEGIRA

Irakurleen begirada kritikoa ezinbesteko osagaia da, informazioaren truke-sokan, eta TOLOSALDEKO ATARIA-ren erabiltzaileek bidezidor asko ireki dituzte inkesta-erantzunetan, egitasmo berrietara iristeko.

Komunitatearen atala indartzeko eskaerak bat baino gehiago izan dira. Tolosaldeko talde, eragile nahiz alderdi politikoei www.ataria.eus-en duten txokoa da komunitatea eta, zenbait erabiltzailearen iritzi, leku ikusgarriago bat beharko luke webgunean.

Kulturari begira ere jarri dira

irakurleen betaurreko finak, eta musikari nahiz zinemari atal bana eskaintzea oso begi onez ikusiko lukete askok, eskualdeko eskaintza zabalera agerkariaren bitartez ere iristeko.

Eta, TOLOSALDEKO ATARIA-ren produktuari buruz iritzia ematearekin batera, irakurleek beste herritarren iritziaz egunero elikatze irrika ere erakutsi dute, inkestetan. Askok eta askok, ostiraleroko astekaritik kanpo zutabeak argitaratzea eskatu dute.

Azkenik, bada grina orokor bat, etorkizuneko irakurleen artean: hezkuntzari, haurrei nahiz gazteei begirako eduki gehiago landu eta argitaratzearena. Hezkuntzari buruzko erreportajeak eskatu dituzte Tolosaldeko emakume-gizonek, eta baita etorki-

Auzokonposta egin nahi dutenek dagoeneko izena eman dezakete

Udal bulegoetan edo posta elektronikoz eman ahal izango da izena; urtarrilaren 13an amaitzen da epea

Erredakzioa Alegia

Alegiako Udalak aurrera jarraitzen du herritarrei auzokonposta egiteko aukera ematea helburu duen egitasmoarekin. Hori horrela, auzokonposta egin nahi dutenentzat izena emateko epea zabalik dago.

Abenduaren 13an egin zen bilera informatibo irekian ekimenaren nondik norako guztiak azaldu zitzaizkien bertaratu zirenei. Auzokonpostak hondakin organikoa beste modu batera kudeatzeko aukera eskaintzen du. Udalak auzokonposterako hiru gune kokatu ditu herrian zehar. Don Pio Montoya plazan, Erbeta parkean eta Larraitz auzoko mendebaldean daude eta auzo

konposta egin nahi dutenek eguneko edozein unetan bota ahal izango dute hondakin organikoa bertara, ordutegi zehatzik gabe.

Gauzak horrela, lehen bilera horren ostean, izena emateko epe bat zabaldu da auzo konposta egin nahi duten herritarrentzat. Epe hori datorren urtarrilaren 13ra, ostirala, bitartean egongo da zabalik eta bi modutara eman ahal izango da izena. Alde batetik, udaletxera joan eta bertako bulegoetan eman ahal izango da, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara bitarte. Bestetik, komunikazioa@alegia.net helbidera mezu bat bidalita. Mezu horretan ondoko datuak eman beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbaki bat.

Behin izena emateko epea itxita, auzo konposta egiteko interes duten herritarren artean prestakuntza tailer bat egingo da prozesuaren funtzionamendua azaltzeko.

Udaberri aldera herri baratzak erabilgarri izatea aurreikusten dute

Hainbat azpiegitura auzolanean egin dituzte, etxola eta konpost gunea, besteak beste

Imanol Garcia Landa
Ikaztegieta

Ikaztegieta herri baratzak laster egongo dira erabilgarri. Udaberri aldera aurreikusten du Barne Otegi alkateak lursailak banatuko direla, eta erabiltzaileak bere lanak egiten hasiko direla. «Ea otsaila alderako bukatzen diren falta diren azpiegiturak, eta lursailak banatzeko aukera dugun», esan du Otegi.

Herritarrengandik iritsi zen udalera baratzak jartzeko ideia. «Interesgarria iruditu zitzaigun», esan du Otegi. «Azkenaldian inguruko herri askotan jarri dira horrelako proiektuak martxan, eta jendea oso gustura ikusten da. Herrian batzuk badute lursaila, baina beste batzuk ez eta horiei begira ikusi zen proiektu polita izan zitekeela».



Lehenengo deialdi bat egin zuen udalak proiektuaren inguruan. «Ikusi nahi genuen zenbat herritar zeuden interesatuta, eta egia esan nahiko harrera ona izan zuen. Gero hortik aurrera lanketa egiten hasi ginen», zehaztu du alkateak. Hurrengo pausoa herri baratzak jartzeko lurtzoria bilatzea izan zen. «Herriarenak diren lurtzoriei dago-kionez, aukera gehiegirik ez dugu eta herrigunetik gertu zegoen lursail bat bilatzen aritu ginen». Eskolaren atzean eta ibaia- ren ondoan dagoen lurtzori bat, 1.800 metro koadro inguru dituen, errentan hartu du udalak.

Behin lurtzoria lortuta zutela, bigarren deialdi bat egin zuen udalak, proiektua gehiago zehazten joateko. Horren ondoren, lursailen lanak egiten hasi ziren auzolanean. «Itxitura jarri genuen, eta gero etxola eta ur askak izango ziren lekuan masazko oinarriak egin genituen. Etxola ere eraiki dugu, eta konpost gunea ere bai; hauek egurrez egin dira. Larunbatetan aritu gara, eta eguraldiak ere bere eragina izan du, eta pixkana aritu gara lanak egi-

ten», esan du Otegi. Orain falta zaie lursailera ura eramatea eta partzelak egitea.

EKOGUNEA SAREAN SARTZEA

Ikaztegieta herri baratzak egitasmoa Ekogunea sarean sartu nahi dute. «Horrek ere ekarriko du erabiltzaileek prestakuntza eta aholkularitza izatea, Furgobaratza ekimenarekin, esaterako», dio Otegi. «Erabiltzaile bakoitzak izan ditzakeen arazoei irtenbideak ematea nahi da. Berez, lursaila ez dutenentzako proiektua da, eta erabiltzaileak baratze lanetan esperientziarik ez dutenak izan daitezke».

Lursaila hamabost zatitan egitea aurreikusten da, eta Otegi azaldu duenez, izena eman dutenen artean gehientsuenak dira baratze lanetan esperientziarik ez dutenak. Oraingo hamar inguru dira izena emandakoak. Bestalde, Ikaztegieta eskolari ere lursail bat emateko asmoa dute. «Iruditzen zaigu eskolarentzat interesgarria izan daitekeela eta gauza polit bat egin daiteke eskolarekin elkarlanean», esan du alkateak.



Etxola eta konpost gunea auzolanean eraiki dituzte. ATARIA



saridunak

Atarikideentzat **sorta** dugu

• **Javier Intxaurren (Berastegi)**



Rafa Gorrotxategi
Teila mixtoak eta ron eta mahaspasadun trufa beltzeko turroia



Saria jasotzeko **ataria**ko egoitzatik pasa

Atarikideentzat **3 sarrera pare** ditugu

PILOTA JAIALDIA



- Leo Altuna (Amezketza)
- Iñaki Arana (Tolosa)
- Nekane Tolosa (Hernialde)

Binaka
Dario - Erostarbe
Elordi - Irusta

EPELen Eskuz Binakako
Txapelketa
Final-laurdenak
Olaizola II - Untoria
Artola - Albisu

Binaka
Retegi BI - Martinez
Errandonea - Tolosa

Urtarrilak 2, astelehena
16:30ean, Tolosako Beotibarren

Sarrerak lehiatzen bertan izango dituzue

PILOTA JAIALDIA

Binaka
Dario - Erostarbe
Elordi - Irusta

EPELen Eskuz Binakako Txapelketa
Final-laurdenak
OLAIZOLA II - UNTORIA
ARTOLA - ALBISU

Binaka
Retegi BI - Martinez // Errandonea - Tolosa



Urtarrilak 2, astelehena
16:30ean, Tolosako Beotibarren

«Ikasteko gogoz nago eta talde ona daukat ondoan»

SILVIA MONEO CID BELAUNTZAKO ALKATEA

Mariano Lazkanoren bat-bateko heriotzak ezustean harrapatu zuen Moneo, baina jada hasi da lanean eta argi du zeintzuk diren herriko beharrak: gazteak herrira erakartzea eta adineko pertsonen bizimodua erraztea

Rebeka Calvo Belauntza

Silvia Moneo Cid (Tolosa, 1994) da Belauntzako alkate berria. Tolosan jaio zen, baina 19 urte dira Belauntzan bizi dela. Gogotsu hartu du kargua eta garrantzitsuena herritarren beharrak entzutea dela esan du. Helburu behinenak zahartzen eta gutxitzen ari den biztanleriari aukera berriak ematea eta herria biziberritzea direla esan du.

Gaindegia egindako azterketa baten arabera, Belauntzak biztanleria galdu du nabarmen. Ba al duzue proiekturik egoerari buelta emateko?

Datuak begiratzen aritu gara eta egoerari buelta emateko proiektu sozial bat dugu eskuartean. 65 urtetik gora 54 pertsona daude herrian eta errondan 245 pertsona besterik ez gara, honek ardura-

tzen gaitu, pentsa 5-10 urtetan jasango dugun galera. Arazo handi bat da. Horregatik eskuartean ditugun proiektu guztiak herriaren birjendetzatza begirakoak dira. Hau da, jende gaztea erakarri nahi dugu eta ditugun adinekoak ahal den egoerarik onenean egon daitezela bermatu.

Eta zeintzuk dira bada, proiektu horiek?

Martxan hiru proiektu ditugu. Batetik, pabiloietako ur ekarrera berria egiten ari gara, pabiloia behar dituzten elementuekin hornitu behar baititugu. Bestetik, errepideak asfaltatzen aritu gara, jendea beren etxeetara arazorik gabe iristeko, batez ere, orain, neguan. Baserriak sakabatatuta daude eta bideak egoki eduki behar ditugu, herritarrentzat garrantzitsua da eta beraientzat garrantzitsua bada, baita gu-

retzat ere. Azkenik, larrialdi bat dagoenean, esaterako, zaila izaten da baserriak topatzea. Anbulantziak etorri behar duenean edo, ez daki non dauden etxeak eta arazoak ekiditeko baserriak topatu ahal izateko kartelak jarri ditugu, mapa batzuekin, eta hauek gauetan ere ikusi daitezke. Hiru proiektu hauek guztiz bukatuta egongo dira urtarrilerako.

Eta behin horiek bukatuta, zein asmo dituzue?

Beste lau proiektu ditugu. Premiazkoena dena da zaborra biltzeko pabiloi bat eraikitzea. Herrian nahiko sistema pertsonalizatua dugu hondakinak jasotzeko. Pertsona batek jasotzen ditu etxe atarietan eta gune batera eramaten ditu birziklatu ahal izateko, baina gunea ez da egokiena. Herritarrek sistemarekin oso gustura daude eta beraz, horrela jarraituko dugu, baina birziklatzeko gune hori egokituko dugu. Horrez gain, bertan baserriarrek beren materiala gorde ahal izango dute, guztiek ez baitute material guztia gordetzeko lekurik. Udaletxeko langileek erabiltzen dituzten tresnak ere bertan gordeko lituzkete. Gaur

egun elizaren azpian dagoen lokalean uzten dituzte eta gure asmoa da hori hustu, pabiloia eraman, eta bertan herritarrek biltzeko eta gustura egoteko gune bat egitea, batez ere adinekoei begira. Beharrezkoa balitz, adineko jendearekin egongo litzatekeen pertsona bat hartuko genuke, baina hori ikusiko dugu. Hau guztia egiteko diru laguntzak behar dira, ordea, Belauntza herri txikia izanik ezin baitu kostu guztia bere gain hartu.

Eta gazteei begira, zer egingo duzue?

Ikastola zaharrean etxebizitzak egin nahi ditugu, hori ere landuko dugu, baina oraindik ez daki gu nola egingo dugun. Etxebizitza hauen ondoan badago ere udalarena den lursail bat eta hor ere etxebizitzak egin nahi ditugu, aurretik aipatu dugun hori lortzeko, hau da, gazteek herrian geratzeko aukera izateko eta orokorrean, jende gaztea erakartzeko eta iraulita dugun piramide demografikoari buelta eman ahal izateko. Horregatik ere ezin dugu sekulako kostua izango duten etxebizitzak egin. Hausnartu eta proiektuak garatu behar ditu-

gu. Iritziak ere bildu nahi ditugu eta bilerak egingo ditugu. Hainbat kirol egiteko aukera emango duen futbol zelaia eta bolatokia ere egin nahi ditugu. Frontoia itxi genuen eta egunero beteta dago, jende asko erakartzen du eta kirol gune berri horrekin ere bide horretatik jarraitu nahi dugu. Aurreproiektuak eginak ditugu eta orain aurkeztu eta diru laguntzak bideratu behar ditugu.

Gogotsu heldu diozu erronkari beraz, proiektu asko dituzu mahai gainean.

Marianok [Lazkano] jende gaztea inplikatu nahi zuen herrian eta bere garaian eskua luzatu zidan bere ondoan egoteko. Bere ondoan egon eta ikasteko asmoz onartu nuen erronka, ez nuen espero hau gertatuko zenik, bat-batekoa izan da eta ohitu egin beharko dut. Ikasteko gogoz nago eta talde ona daukat ondoan.

Denok Bateko lau kide eta Gazteak Aurrerako hiruk osatzen duzue udalbatza, zer moduz moldatzen zarete?

Aurrerantzean denak batera ariko garela uste dut eta nire ustez ikuspuntu desberdina edukitzea aberatsa da.



R. CALVO

Sustapena Abenduak 9 - Urtarrilak 5

izarrez beteriko gabonak

Musika, magia eta espektakuluen izarrek beteko dituzte Tolosako kaleak

6.000€ saritan

100€ko 60 erosketa txeke

Tolosa & Co

1^{er} GAINERA

Tributo a Fito & Fitipaldis
Bualá Lauroba
Mago Eriz
Dirt, jump-trial
Baobas
DJ Josu
Zapatos en el aire
Kantu kolore
Deabru beltzak

Nazioarteko baserritar azoka esanguratsuen artean, Tolosakoa

Azoken dinamikotasunak, agerian uzten du gizartearen bilakaera etengabea eta hauen egokitzapen gaitasuna

Ainhoa Zabala

Tolosako Azoka-ko teknikaria

Igaro berri da Tolosako Gabonetako Azoka Berezia. Neguko soltizioaren gerturatzearekin batera, baserritarren azokaren zikloa ixten duen garai berezia da. Kalitatezko bertako eta garai-ko produktuak merkaturatzeko azoka garrantzitsua izaten da baserritar zein kontsumitzaileen-tzat.

Azokak, elikagaien salerosketarako gune izateaz gain, herritarren arteko elkarrekintza sozial eta kulturalerako espazio publiko ere badira. Azoken erromantizismorako joera nabarmena da gure gizartearen, eta horren adibide da azokaren irudi betikotua, museo-bizidun gisakoa eta landa-eremuari uztartutako diskurtso hedatua. Praktikan ordea, gaur egungo azoken izaera aktiboa, egungo erronkei egokitzen dabilena dimentsio ekonomiko zein sozial-kulturala indartzen duenarekin topo egiten dugu.

Gizartearen bilakaerak berarekin ekarri ditu, elikadura ohituraren aldaketa, familia egitura berrien sorrera, emakumearen lan munduratzeara edota kontsumo ohitura eta elikadura diskurtso berrien sorrera, besteak beste. Lehen sektorearen eta landa eremuaren garapen eta bilakaera etengabearen isla dira azokak. Azoken dinamikotasunak, agerian uzten du gizartearen bilakaera etengabea eta hauen egokitzapen gaitasuna.



Gabonetako azoka bereziaren une bat. ITZEA URKIZU

Hirigintza jasangarriaren diskurtsoa gogora ekartzen badugu, ezinbestean oinarritzkoak diren ondorengo printzipioak aipatu beharrean aurkitzen gara: gertutasuna, irisgarritasuna, aniztasuna, bizitasuna, kalitatea eta elikadura subiranotasuna, justizia soziala, ohitura eta usadioen biziraupena dira azpimarratu genitzaken ezaugarri nagusiak. Tokian tokiko azokak, komertzio txikiarekin batera, bizimodu urbano jasangarriaren bizkarrezurra eraiki eta osatzen dute.

Eredu komertziala etengabe-ko eraldaketa batean murgildurik dagoen garai honetan, elikadura eta kontsumo eredu eta ohiturak ere bide bera darrai. Errealitate honen aurrean, estrategiak bilakatu dira tokian to-

kiko azoka tradizionalen onura eta abantailak. Bertako produktioa, jatorriari loturikoa eta hauen kontsumoren sustapena da, produktuen kalitatearen bermearekin batera, azoka hauen ezaugarri nagusi eta baliorik ahaltsuena. Halaber, aspektu kultural, sozial, ingurumen edota ekonomikoak, osasuna eta lurralde orekari dagozkionak ere ezin ahaztu.

Garapen sozio-ekonomikoaren baitan elementu garrantzitsu bezain esanguratsuak dira azokak, hainbat sektoreetan. Hala, ostalaritzan, merkataritzan edota zerbitzuetan sortzen duten zuzeneko zein zeharkakoa eragin ekonomikoa aintzat hartzekoa da, tokian tokiko sustapen ekonomikoaren testuinguruan.

Nekazal-elikagaien sektorean, azokak, ezinbestekoak ditugun gune publikoak dira. Eskualdeko abeltzaintza, artzaintza eta baratzezaintzak ekoiztu eta eraldatutako, tokiko eta sasoiko produktuak balioan jartzearekin batera, landa eremuaren garapenean elementu garrantzitsuak ditugu.

Tokiko ekoizpenetik, ekoizleengandik zuzenean eratorritako bertako produktuen merkaturatze bide laburrak ditugu. Kontsumitzaileari, produktuaren jatorria, bertakotasuna eta kalitatea bermatu ahal izateko, baserritar eta ekoizleekin batera dihardugu elkarlanean. Hartara, bertako produktuen garaian garaiko eskaintza, baserritarrak ekoiztutako kalitatezko produktuen sustapena eta berauen

identifikazioaren bermea ditugu ardatz.

Modu honetan, tokian tokiko nekazal elikagaiak balioan jartzeaz gain, jatorria, kalitatea, elikagai-segurtasuna eta gardentasuna bermatu nahi zaizkio kontsumitzaileari. Izan ere, nekazal elikagaien informazioa helarazi eta ezagutza transmititzea oinarritzkoak dira, bertako produktuen berme eta kontsumoari begira. Lanketa honetan dihardugu, eta horixe sustatze aldera nekazal-elikagaien erakusketa eta lehiaketak ere gauzatzen dira.

Pasa den Tolosako Gabonetako Azoka Berezian, Nekazal-elikagaien lehiaketan, epaimahaiak eginiko balorazioak ere ildo horietan oinarritu dira. Besteak beste, produktuen jatorria eta kalitatea, produktuen barietatea eta postuaren aurkezpena baloratu dituzte. Produktuen freskotasuna, heldutasuna, osasun egoera, neurria eta jatorriaren identifikazioa kontutan hartzearekin batera, barietatea, produktu, prezio eta postuaren identifikazioa, antolaketa eta itxura izan dira epaia deliberatzeko erabilitako irizpideak.

Horrenbestez esan, Tolosako Azoka, bizi-bizirik dugun kultur ondare garrantzitsua dugula. Bertako produktuen eskaintza paregabea eta berau osatzen duten baserritarrekiko harreman zuzenak aitortzen dio Tolosako Azokari dagokion balio erantsia. Honek, baserritar nekazal-elikagaien nazioarteko azoka esanguratsuen artean kokatzen du Tolosako Azoka, kultur ondare ukiezin izendatutako azoken maila bertsuan.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne



ORIAKOREN ZOZKETA

Oriako Limousin Txirrindulari Eskolako Gabonetako zozketa Xabier Zubeldiak irabazi du, 1.905 zenbakiarekin. Zozketa abenduaren 23an izan zen. Aitor Aiertzak eta Abraham Olanoraikoko kideek eman die saria tolosarrari. ATARIA

Asteasura, Urtezaharrean



Herri kirolestatik
Joxe Anjel Sarasola

Urtero bezala, Urtezahar egunean Asteasun herri kirol jaialdia egongo da, 17:00etan hasita. Egursport-ek antolatuta, urrezko aizkolarien eta harri-jasotzaileen txapelketako finalak jokatuko dira, Usarrabin. Aizkoran Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi eta Jon Rekon-do ariko dira. Beraz, bizkaitar bat, gipuzkoar bat eta nafar bat.

Larunbateko finalean 14 kanaerdiko ebaki beharko dituzte.

Harri-jasotzaileen finalean Izeta IV.a semeak, Izeta II.a aitak, eta Jokin Eizmendik neurtuko dituzte indarrak. Egin beharreko lana: 150 kiloko errektangularrarekin, 113ko kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin bi minutuko txandak. Oraingo, 51 jasoalditan dago marka. Izeta II.a da faborito.

Aizkoran, ezustekorik ezean Atutxa da faboritoa. Baina, argi. Aizkoran garaiz kanpo gaudela gogoratu behar da, udako txapelketak bukatuta. Euskal Herriko-rako prestaketa ondoren, Atutxa pixka bat lasaitu egin baldin bada, nahiz eta zaila den mutil hori lasaitzea, Azurmendi eta Rekon-do sasoiko daudela ikusi dugu. Hala ere, niretzat faborito argia Aitzol Atutxa izango da.

Lizasok 2014ko txapela eta trofeoa itzuli beharko ditu

ASTEASU // Donostiako Epaitegiak Juan Jose Lizaso segalari asteasuarrak Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurka aurkeztutako errekurtsua atzera bota du, epai irmoa plazaratuz. Ondorioz, 2014ko Gipuzkoako Segalari Txapelketa Igor Esnaolak irabazi zuela ebatzi du administrazio auzitegiak.

Tolosa CF-k ligako partida jokatuko du ostiralean

TOLOSA // Hirugarren mailako futbolak ez du atsedetik hartuko asteburuan. 19. jardunaldiko partidak jokatuko dira. Tolosa CF-ren kasuan, Balmasedaren aurkako partida, bihar jokatuko du, 18:00etan, Balmasedako La Bula da futbol zelaian. Urdinak bederatzigarren daude sailkapenean, eta Balmaseda hamargarren.

Finalaurreko oso erakargarriak geratu dira Pebeten

Amasa-Villabonan ostiralean eta larunbatean jokatuko dira partidak; Amezketan Aurrera Tolosak jokatuko du ostiralean, elkarteen arteko txapelketan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Antton Pebeten Oroimenezkoa finalaurrekoetan da jada. Urte honen hondarrean, bi jaialdi eder antolatu dituzte Villabonako Bearzana pilotalekuan.

Ostiralean, 19:00etan hasita, bi partida izango dira. Lehenengoan, nagusien mailakoan, Prado eta Etchegoin, Urretabizkaia eta Santxezen aurka neurtuko dira. Lehen bikotea lehenengo partida oso txukuna jokatuta iritsi da finalaurrekoetara. Pradok, ezkerria izan arren, eskuin ederra eta bizitasun handia erakutsi ziotuen bere lehen partidari, eta Etchegoinen eskuinaz lagunduta, bikote arriskutsua osatzen dute. Urretabizkaia eta Santxez ordea ez daude bizitasun eta indar faltan. Astigarragako atzalaria maila bikaina erakusten ari da azken partidetan, eta Urretabizkaia aukerak sortzeko ez du atzelari jotzaile baten beharrik. Beraz, partida irekia espero da.

Bigarren norgehiagokan, gazteen mailakoan, Anso eta Aizpuru Riola eta Cordonen aurka ariko dira. Aizpuru bi esku bizi eta eder ditu, eta Anso, kontuan hartzeko aurrelaria da. Guztia beharko dute ordea aurkariei irabazteko. Riolek final-laurdenetan erakutsi zuen mailak hankaz

gora jarriko lituzke asko. Bizkaitarrak partida bikaina jokatuz, eta atzean Cordonek min hartuta dagoen Aranguren hutsunea beteko du. Cordon pilotari borrokalaria da eta bikote osoa burutuko dute hauek ere.

Larunbatean, 11:00etan hasita beste bi partida eder izango dira. Lehenengoan, gazteen mailakoan, Zubizarreta eta Mariezkurrena Alberdi eta Eskirozen aurka ariko dira. Zubizarreta bere mailako gazteen artean gehien nabarmentzen dena dela esan daiteke. Gutxi galdu eta tantoa erraz bukatzen duen aurrelaria da, eta Mariezkurrenak aurreko partidari erakutsi zuen maila erakusten badu, bikote orekatua osatuko dute. Aurkari izango dituztenak, ordea, ez daude begira egoteko. Eskirozek Diario Vasco irabazi berri du, eta lehenengoan bezala Alberdik pilota aurrean hartzen badu ez du barkatzeko. Partida bikaina ikusteko aukera izango da.

Nagusien mailan, Santxok eta Arratibelek, Arrieta eta Azpitarteren aurka jokatuko dute. Santxoren bikotea Garmendia zen final-laurdenetan, baina larunbatean Zaldibarko finala jokatuko du eta ez da Villabonan izango. Horregatik, Arratibelek jokatuko du Garmendiaren orde. Diario

Vascoko finalean nahiz ez zuen bere mailarik eman, aukera bikaina du, aurrelari bikain batekin arantza hori ateratzeko. Santxo afizionatuen mailan txapel asko lortzen ari da eta aurrekoan ere maila bikaina erakutsi zuen. Guztia beharko dituzte Arrieta-Azpitartern hernaniarrei irabazteko. Arrietak aurreko partidari bi esku bizi eta eder dauzkala erakusteaz aparte, bukatzen ere asmatu zuen, eta atzean Azpitarte bezalako atzelari seguru eta dotorea izanda, partida bikaina espero da.

Beti bezala, sarrera doan izango da eta saski eder baten zozketa egingo da.

OSTIRALEAN, AMEZKETAN

Euskal Herriko Pilota Elkarteen Arteko Nazio Txapelketaren hirugarren final-laurdenak ostiralean jokatuko dira Amezketa Larrunarri pilotalekuan, 21:00etan. Aurrera Tolosak Ultzamako Buruzgainen aurka neurtuko ditu indarrak. Lau t'erdian, Elolak ordezkatzeko ditu tolosarrak, Otxandorenaren aurka jokatuz. Bigarren partida, buruzburukoa, Sarasak eta Urretabizkaia ikaztegiatarak jokatuko dute, eta binakakoa, Astiz-Landiribarrek eta Tolosa Aurrerako Labaka eta Telletxeak.

tolosaldeko
Kirol gida
2016-2017

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

zatoz jasotzera
atariko egoitzara:
San Esteban 20 • Tolosa

Tolosaldeko
KIROL GIDA
2016-2017

ataria



OSTEGUNA, 2016KO ABENDUAK 29
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 29

AGENDA

Deialdiak

Aduna. *Naturarekin solasean.* Herri kirolak eta ingurura irteerak egingo dira. 10:00-13:00 artean.
Amasa-Villabona. Oinargi dantza taldeko kideek eskainiko dute *Lurra* emanaldia. 17:00etan, Gurea antzokian.
Amasa-Villabona. *Badator galdeketahitzaldia.* Tolosaldean erabakitzeke eskubidea gauzatzeraz doa eta hori dela eta, Azpeitiko eta Antzuolako GEDko kideak Amasa-Villabonari izango dira. 18:00etan, Aljibean.
Asteasu. Robotika tailerra. Nire lehen robota tailerra izango da. 16:00-19:00 artean.
Tolosa. Gabonetako egitaraua. Doako puzgarriak eta haur parkea, Zerkausan, 2-8 urte bitarteko haurrentzat. **09:30-12:30.** *Hariak mugituz* tailerra Topic zentroan, 8 urtetik gorako haurrentzat. **10:00-13:00.** *Make it* tailerra BOX.An, 10-16 urte bitarteko gaztetxoentzat. **17:00-20:00.** Topagunetik Txuri-Urdinera irteera egingo dute, 12-16 urte bitarteko gaztetxoekin. **17:00.** *Mi amigo el gigante*, Leidor aretoan. **18:00.** Dirt Jump eta Trial erakustaldia Trianguloa plazan, Tolosa&Co-ren eskutik.
Zizurkil. *Oker*, haurrentzako filma euskaraz. 17:00etan, Plazida Otañon.

ATARIA IRRATIA

Egun guztian zehar.
Euskal musika eta urteko elkarizketarik garrantzitsuenak.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.
Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 670648.
Gauekoa. Morant Barber, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi egonkor eta eguzkitsua jarraipena izango du, baina ñabardura batekin. Haizeak arratsaldean ipar-ekialdera egin eta gau aldera dezentetaz hoztuko du. Egunean zehar zerua ia oskarbi mantenduko da eta tenperatura goxoa izango da (14-16 gradu). Gauean dezentetaz hoztu eta balio hotzenak 3-5 gradutan koka-tuko dira.

Bihar. Ostegunaren ia erabateko kalkoa izango da gaurko eguraldia. Goiza oso hotza (3-5 gradu). Egunez, ipar-ekialdeko haizearen laguntzaz tenperaturak goxatuko dira (14-15 gradu). Zeruari dagokionez, aitzakia gutxi. Apenak ikusiko dugu hodeirik eta zerua oskarbi mantenduko da. Gauean berriz ere hoztuko du, nahiz eta haizeak hego-ekialdera egingo duen.

Tolosaldeko ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Tolosaldeko lehen kirol gida, eskura

Guztira 2.500 ale kaleratu dira eta dagoeneko eskuratu daitezke eskualdeko hainbat tabernetan, kirol taldeetan, iragarleen egoitzetan eta 'Ataria'-ko erredakzioan, doan



2016-2017ko kirol aktibitatea jasotzen duen Kirol Gida. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eta ATARIA-k argitaratu berri dute *Tolosaldeko Kirol Gida*, bertan ageri diren kirol talde eta iragarleen laguntzarekin.

Kirolarekin harreman estua eta emankorra du Tolosaldeak. Kirolari askoren sorlekua izan da eta da, maila apalenetik hasi eta goi mailarainoko bide eta zaba-lean. Kirolarekiko lotura hori egunero-egunero kirol praktika sustatzen eta bideratzen ari diren talde eta eragileengan sustengatzen da. Izugarritzko kirol aktibitatea eragiten du horrek gure herrietan, eta handia da horrek sortzen duen jarraitzaile emaria.

Honegatik guztiagatik, ekar-men xume eta baliagarri bat egin nahi izan du ATARIA-k Kirol Gida honen bitartez. Ezinezkoa da urtean zehar eskualdeko kirolari eta kirol talde guztien praktika islatuko duen gida xehea egitea. Horregatik, egitasmo hau abian jartze aldera, eskualdeko kirol talde nagusien datu xehatuak eta lehiaketa egutegiak ardatz dituen liburuxka osatu da, eta eskualdeko eragile guztien mapa erantsi zaio amaieran.



RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU TURROIAK

Rafa Gorrotxategi

Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 3

943 89 03 06 / www.rafagorrotxategi.eus

